



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.ÍA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritik, Vitoria-Gasteizen, Lehendakariatzako egoitzan, **2021eko APIRILAREN 20an**, 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakariatza, a las 10:00 horas del día **20 DE ABRIL DE 2021**, con el siguiente

## GAI-ZERRENDAA

## ORDEN DEL DÍA

Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la Sesión anterior.

LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Erabaki-proposamena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, informazioa elkarri trukatzeko.

2

Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba la suscripción de un Convenio con la Tesorería General de la Seguridad Social sobre intercambio recíproco de información.

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Enplegu-Zentro Berezetan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak finantzatzeko, urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

3

Propuesta de Acuerdo de autorización del gasto superior a 5.000.000 de euros, en concepto de ayudas destinadas al mantenimiento de puestos de trabajo de personas con discapacidad en Centros Especiales de Empleo previstas en el Decreto 168/2019, de 29 de octubre.

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO



- |  |   |  |
|--|---|--|
| <p>Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailletako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua.</p>   | 4 | <p>Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los departamentos y organismos autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma.</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, saltoki handien gaineko ingurumen-zergari buruz EH Bildu legebiltzar-taldeak egindako lege-proposamena aintzat hartzeari buruz Jaurlaritzak duen iritzia adierazteko dena.</p>   | 5 | <p>Propuesta de Acuerdo de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley, formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa al impuesto medioambiental sobre grandes establecimientos comerciales.</p>   |
| <p>Eduki ekonomikoa duten agindu eta erabakien zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.</p>  | 6 | <p>Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.</p>   |
| <p>EKONOMIAREN GARAPEN,<br/>JASANGARRITASUN ETA<br/>INGURUMEN SAILA</p>  |   | <p>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO<br/>ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y<br/>MEDIO AMBIENTE</p>   |
| <p>Erabaki-proposamena, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroarekin (EPE) sinatu beharreko "Jarduketa-plana, Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzeko hitzarmenari atxikia" harpidetza jakinaraztekoa.</p>   | 7 | <p>Propuesta de Acuerdo por el que se toma conocimiento de la suscripción del "Plan de Actuación anexo al Convenio para el fomento de la innovación y el desarrollo tecnológico en la Comunidad Autónoma del País Vasco", a suscribir con el Centro para el Desarrollo Tecnológico Industrial, E.P.E. del Ministerio de Ciencia e Innovación.</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioarekin, Gaztela eta Leongo Juntako Ekonomia eta Ogasun Sailarekin eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin sinatu beharreko jarduera-protokolo orokorra jakinarazteko dena, Garoñako Bidezko Trantsizioko Hitzarmena diseinatzeko partaidetza-prozesua garatzeko.</p>  | 8 | <p>Propuesta de Acuerdo por el que se comunica el protocolo general de actuación a suscribir con el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto demográfico, la Consejería de Economía y Hacienda de la Junta de Castilla y León, y la Federación Española de Municipios y Provincias, para el desarrollo del proceso participativo de diseño de un Convenio de Transición Justa de Garoña.</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko, honako agindu hau finantzateko: Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, 2020ko abenduaren 22ko Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez arautzen baitira, 2021erako, Leader eremuan dauden landa-eremuko udalerriak sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartutakoak.</p> | 9 | <p>Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000 de euros, para sufragar la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, de modificación de la Orden de 22 de diciembre de 2020, por la que se regulan, para el ejercicio 2021, las ayudas destinadas a la promoción, al desarrollo y a la diversificación económica de los municipios rurales incluidos en la zona Leader aprobada en el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020.</p> |



Erabaki-proposamena, Basque Research and Technology Alliance - Partzuergo Zientifiko Teknologikoaren Batzar Orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari bat kargutik kendu eta izendatzeko dena.

10 Propuesta de Acuerdo de cese y nombramiento de un representante de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la Asamblea General del Consorcio Científico-Tecnológico Vasco - Basque Research and Technology Alliance.

#### HEZKUNTZA SAILA

#### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita laugarrenez Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen Dekretua.

11 Proyecto de Decreto de cuarta modificación del Decreto por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo del personal laboral no docente de apoyo al alumnado con necesidades educativas especiales en centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Erabaki-proposamena, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioarekin lankidetz-hitarmen bat sinatzeko baimena ematen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei elkarrizketaguntzaileak emateko 2021/2022 ikasturterako.

12 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con el Ministerio de Educación y Formación Profesional, para la dotación de auxiliares de conversación a Centros Educativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para el curso 2021/2022.

Erabaki-proposamena, Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalarekin (UNED) lankidetz-hitarmen bat sinatzeko baimena emateko dena.

13 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con la Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED).

#### BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

#### DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Erabaki-proposamena, zenbait erakunde 2020. urterako garapenerako lankidetzaproiektuak finantzatzeko zenbait laguntza ekonomiko eskuratu ahal izateko bermea eratu beharretik salbuesten duena.

14 Propuesta de Acuerdo de exoneración a determinadas entidades de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de diversas ayudas económicas para la financiación de proyectos de cooperación para el desarrollo para el año 2020.

Erabaki-proposamena, "Addameer, Prisoner Support and Human Rights Association" erakundeari zuzeneko dirulaguntza emateko baimena emateko dena, Israelgo espetxeetan preso eta atxilotuta dauden palestinarren eskubideak defendatzeko, arreta berezia jarriz COVID-19 pandemiak sortutako egoeran.

15 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad "Addameer Prisoner Support and Human Rights Association", para la defensa de los derechos de las personas palestinas presas y detenidas en cárceles israelíes, con especial atención a la situación originada por la pandemia del COVID-19.

#### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

#### DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa  
Integralaren eta Dokumentu-Ondarearen  
Legearen Aurreproiektua.

16

Anteproyecto de Ley de Gestión  
Documental Integral y Patrimonio  
Documental de Euskadi.

IZENDAPENAK ETA KARGU-  
KENTZEAK  
LEGE BILTZAR-EKIMENAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 16a.

En Vitoria-Gasteiz, 16 de abril de 2021.

**IZP./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**  
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA EUSKO**  
**JAURLARITZAREN IDAZKARIA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y**  
**AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL CONSEJO DE GOBIERNO**